

3. MAILA

Azterketa idatzia

B EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak lau zati izango ditu

- Entzumena
- Idazmena
- Gramatika eta lexikoa
- Irakurmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste hiru zatiak, idazmena, gramatika eta lexikoa, eta irakurmena ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **2 ordu eta 30 minutu** izango dituzu idazmenaren, gramatika eta lexikoaren, eta irakurmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Azterketa idatzia	Idazmena	15	30 puntu	1 h 15 min inguru
	Gramatika eta lexikoa	5	10 puntu	25 min inguru
	Irakurmena	5	10 puntu	45 min inguru
	Guztira	28	50 puntu	
	Entzumena	10	20 puntu	25 min inguru

ENTZUMENA

Ondoren, Euskadi Irratiak **Lourdes Oñederra hizkuntzalariari** egindako elkarrizketa entzungo duzue. Elkarrizketa **bi aldiz** entzungo duzue eta bi ataletan banatuta dago.

Orain, 3 minutu dituzue **lehen atalari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

LEHEN ATALA

- 1. Nork kontatzen du Sommer jaunaren istorioa?**
 - a. Sommer jaunaren sorterrian azaldutako ibiltari batek.
 - b. Sommer jaunak, mutiko garaian.
 - c. Kontakizunaren narratzaileak, mutiko batek.
 - d. Hartzaroko oroitzapenez bakarriketan diharduen gizon batek: Sommer jaunak.
- 2. Noiz izan zuen Lourdes Oñederrak literatura-lan honen berri?**
 - a. Euskaltzaindian sartzekotan zela, izan zuen lanaren berri.
 - b. Soroizek esan zionean katalanezko antzerki-lanean parte hartu zuela.
 - c. Katalunian antzerkirako moldatzeko asmoa zutela jakin zuenean.
 - d. Joxe Ramon Soroizekin hizketan ari zela, duela ia hiru urte.
- 3. Sommer jaunaren istorioa irakurri aurretik, Oñederrak ba zuen Suskind-en literaturaren berri?**
 - a. *Kontrabaxuaren bakarriketa* artean ezaguna zuen.
 - b. Bai, haren hainbat liburu irakurriak zituen ingelesez eta alemanez.
 - c. Ez, Suskind nor zen ere ez zekien.
 - d. Bai, Suskind-en *Kontrabaxuaren bakarriketa* euskarara itzulia zuen eta.
- 4. Zergatik ekin zion itzulpen lanari?**
 - a. Argitaletxe batek eskatu ziolako.
 - b. Patrick Suskind-en liburu bat bera ere ez zegoelako euskarara itzulia.
 - c. Bakarriketak erakargarri egiten zaizkiolako.
 - d. Joxe Ramon Soroizi hitzeman ziolako.
- 5. Itzulpengintzaz ari dela, zer dio Lourdes Oñederrak?**
 - a. Itzulpen onak egiteko nahitaezkoa dela hizkuntza asko jakitea.
 - b. Teknologia berriek asko erraztu dutela itzultzailearen lana.
 - c. Hizkuntza askorekin lan egitea ona dela, baina zoratzeko modukoa.
 - d. Teoriak eta praktikak ez dutela batak bestearekin zerikusirik.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

ENTZUMENA

Orain, 3 minutu dituzue **bigarren atalari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

BIGARREN ATALA

- 6. Zertarako erabili du klaustrofobiari buruzko pasartea bere ikasleekin?**
- Terminologiako hitz zailek ez dutela beti gehiago esaten adierazteko.
 - Itzulinguruka ibili beharrean, harira joan behar dela adierazteko.
 - Oro har, ikasleek bizitzaz hausnarketa egin dezaten.
 - Hitz teknikoaren definizioa ematen ikas dezaten.
- 7. Antzerki-lana prestatzean, zer gertatu da?**
- Katalanezko moldapena ez dutela kontuan hartu.
 - Ikaragarri lagundu diola Lourdesi aldi berean liburua itzultzen aritzeak.
 - Katalanek egindako egokitzapena baliagarria izan zaiela.
 - Lagungarri gertatu zaiela euskarak eta katalanak duten antzekotasuna.
- 8. Zertarako egin dituzte irakurketa saioak?**
- Soroizen ahozko jarduna kontuan hartuta, testuari zenbait egokitzapen egiteko.
 - Soroizen antzezpena Suskind-en testutik urrundu ez zedin.
 - Soroizek bere ahoskera testuaren ezaugarrietara egokitu zezan.
 - Soroizi argibide batzuk emateko testua irakurtzeko erari buruz.
- 9. Antzezlana prestatzeko, zer testu izan du Oñederrak abiapuntu?**
- Jatorrizkoa, hau da, katalanezkoa.
 - Alemanezkoa bakarrik.
 - Euskarazko bere itzulpena.
 - Gaztelaniazko itzulpena.
- 10. Patrick Suskind-en *Sommer jaunaren istorioa***
- jatorriz antzerki-lana da, baina liburu moduan ere argitaratu da.
 - izatez ez da antzerkirako propio idatzitako liburua, baina antzerkirako prestatu dute.
 - sortzez antzerki-lana da; bakarrizketa bat, hain zuzen ere.
 - berez antzerki-lana da, hainbat hizkuntzatarara itzuli eta egokitu dena.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	-----

IDAZMENA

Egitekoa:

Jarraian, artikulua bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

1. gaia

Energia nuklearra, beharrezkoa ala arriskutsuegia?

“Orain dela 22 urte, 1986.eko apirilaren 26an, munduan izan den istripu nuklearrik larriena gertatu zen Sobiet Batasuneko Txernobilen. Milaka lagun hil zituen: 56 zuzenean eta, iturrien arabera, 4.000 eta 93.000 artean minbiziaren erruz. Hala ere, azkenaldi honetan, CO2 isurketak murriztu beharrak eta petrolioaren garestitzeak bultzada eman diote energia nuklearrari”.

Albistearen gaia kontuan hartuta, herriko aldizkarirako **artikulu** bat idatzi behar duzu.

Eman zure iritzia.

Zure iritzia ematearekin batera, energia nuklearraren aldeko eta kontrako ikuspegiak ere azaldu.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- ☆ Frantziako gobernuek apustu garbia egin dute energia nuklearraren alde. Erresuma Batuak atek ireki dizkie erreaktore berriei.
- ☆ Espainiako Foro Nuklearreko presidentek dioenez, energia garbia eta merkea da.
- ☆ Europako Parlamentuak ezinbestekotzat jo du energia nuklearra, europarren energia beharrak asetzeko.
- ☆ Mundu osoko ekologistek argi eta garbi utzi dute energia honen kontrako jarrera.



2. gaia

Haurren esplotazioa hirugarren munduan

“1998ko Munduko Kopan kirol-marka handi batzuen kontrako kanpaina egin zen, hirugarren munduko lantegietan umerik ez erabiltzeko. Horren ondorioz, herri askotako ekonomiak, behera nabarmen egiteaz gain, milaka ume kale gorrian geratu ziren, eta eskean edo prostituzioan hasi”.

Albistearen gaia kontuan hartuta, herriko aldizkarirako **artikulu** bat idatzi behar duzu.


Eman zure iritzia

Zure iritzia ematearekin batera, hirugarren munduko haurren egoera zein den azaldu eta egoera hori arrazoitu.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- ☆ Munduaren erdia beste erdiaren kontura bizi da.
- ☆ Denok erosten ditugu hirugarren munduan egindako gauzak, merkeagoak direlako.
- ☆ Umeak erabiltzeagatik salatuak izan ziren enpresak orain beren irabazien zati bat gosearen kontrako kanpainetan gastatzen hasi dira.
- ☆ Gaur egun “bidezko merkataritza” ere modan dago.



HABE

Asteko gaia

5 _____

10 _____

15 _____

20 _____

HADE

25 _____

30 _____

35 _____

40 _____

45 _____

50 _____

HABE

55 _____

60 _____

65 _____

70 _____

GRAMATIKA ETA LEXIKOA

1. ESALDIAK BERRIDATZI

Egitekoa:

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste era batera adierazi behar dituzu. Horretarako, azpiko esaldia osatu behar duzu, goiko esaldiko hitzak ahalik eta gutxien aldatuta. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz, eta ortografia zuzenarekin.

Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik eten-puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...takoan → *etorri* takoan

Eten-punturik ez badu, aparteko hitza da.

Adibidez:

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

Hasieran bera erruduntzat jo izanak **lotsatu** egin ninduen gero .

1.- Lehenbailehen amaitu behar dugu lan hau, etxeratu aurretik kafetxo bana hartu nahi badugu.

Albait

.....**...ko**

2.- Urruti bizi da, baina astebururo etortzen omen da bisitan.

..... **gorabehera**

3.- A zer-nolako neska politak ibiltzen ziren taberna haietan!

Haiek !

4.- Barkatu, baina ezin izan dizuegu eskatutakoa ekarri, ez baitugu prestatzeko astirik izan.

.....**...tzerik**

..... **eta.**

5.- Kontrakoa dirudien arren, nagusitxo asko hainbat gazte bezain trebeak dira kirolean.

..... **besteko**

6.- Emaztearen gurasoek deitu digute aurtengo neguan eurei bisita egitera joateko, Boisen duten etxera, hain zuzen.

..... **joan**

7.- Aitorrek eta biok iaz ezagutu genuen elkar Pirinioetan eskiatzen. Hona hemen orduko argazkiak.

.....**...eko**

HADE

8.- Ikasleek gaur bertan asanbladan erabaki dute datorren asterako greba-deialdia egitea EHUko campus guztietan.

..... **arabera**,

9.- Gaur egun, alferrikakoa dugu paperezko egunkariak erosten ibiltzea, nahi adina egunkari baititugu Interneten irakurgai.

..... **zertan**

..... **irakur**

10.- Ezinikusi izugarria dionez, edozer egiteko prest egoten da, berarekin lanik ez egitearren.

..... **non**

2. BALIOKIDEA AUKERATU

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea** aukeratu behar duzu. Idatzi bakoitzari dagokion letra beheko laukietan.

Deseroso

Irakaskuntzak -eta aita izateak- eraman ninduten haur literaturara, ez literaturak berak. Eskolatik **urrundu (1)** nintzenean -eta alabak **koskortzen (2)** joan ahala- urrutiratzen hasi nintzen mundu horretatik. Joan zen astean, **garai (3)** hartako narrazio baten itzulpena **zuzendu (4)** behar izan nuen. Arrotza sentitu nintzen testuarekin. Lekuz kanpo. Azken urteotan generotik urrundu izanari **egotzi (5)** nion deserosotasuna.

Atzo, **sarean (6)** nenbilela, García Márquezek *Esquire* aldizkariari egindako aitormen bat **topatu (7)** nuen: "**Saiatu (8)** izan naiz haurrentzat ipuinak idazten, baina ez zait ezer onik atera. Behin, semeak txikiak zirenean, ipuin bat irakurrarazi nien. Laster itzuli zidaten, esanez: - Aita, zuk umeak **kokoloak (9)** garela uste duzu ala?"

Brastakoan (10), ispiluan neukan orain gutxiko nire deserosotasunaren kausa: nire egonezina ez zen biografiak -generotik urrutiratu izanak- sortua, testuak berak baizik.

Anjel Lertxundi. *Berria*: 2008-03-02 (moldatua)

	A	B	C	D
1	Irten	Higatu	Pasatu	Aldendu
2	Hasten	Harrotzen	Hazten	Hurreratzen
3	Areto	Aldikada	Altuera	Gailur
4	Birrindu	Sailkatu	Azpimarratu	Orraztu
5	Jaurti	Igorri	Leporatu	Menderatu
6	Amaraunean	Jolasean	Sesioan	Sagastian
7	Suertatu	Oztopatu	Idoro	Ospatu
8	Ahalegindu	Sumindu	Bilakatu	Berdingu
9	Mamorroak	Nerabeak	Tentelak	Morroiak
10	Egonean	Bat-batean	Aurrean	Haatik

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

IRAKURMENA

Egitekoa

Irakurri testuak eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **letra** beheko laukietan.

1. Testua

Quirola

Jose de Arteche zenak aitortu zuen (1968), berak neologismotzat jo arren 'quirola' XIII. mendeko hitza zela, Justo Garatek gogoratu bezala (Euskera XII, 1967) Berceoren olerkietan azaltzen da eta.

Egia da Justo Garatek hori esan zuela, egia den bezala hainbat urte lehenago Augustin Anabitartek (Euskal Etnalea, 1919) 'kirol' hitza erabili zuela. Aurretik, berriz, Azkuek hiztegiari (1905) jasoa zuen eta, ordurako, bildua XVI. mendeko erretrauetan (Refranes y Sentencias, 1596).

Garbi dago 'kirol' hitza ez dela asmatu berria, zeharo zaharra baino. Hizkuntzalariek ez dute honetaz inolako zalantzarik. Baina soziologoek galdetu lezakete, ostera, ea zelan arraio "quirola" agertzen den Erdi Aroan, Errioxan, kirola ingelesek asmatu bazuten XIX. mendean.

Kontua da 'quirol' hitzak ez duela jatorriz joko edo ariketa fisikorik esan nahi, olgeta edo jolas atsegina baino. Baina, XIX. mendean, ingelesek 'sport' hitza berrasmatu zuten joko edo ekitaldi fisikoa adierazteko eta ondoren etorri zen antzinako berba zaharraren egokitzapena frantsesez, gaztelaniaz zein euskaraz.

Jakinekua, beraz, zelan izan zen aldaketa historikoa. Auskalo, ordea, nor izan ote zen aldaketaren lehenbiziko eragilea. Hau da, 1905eko Azkueren hiztegiari 'kirol' hitza jostaketaren sinonimoa zen; 1919. urtean, berriz, Anabitartek idatzi zuen: euzkotarrak txapeldun dira kirol askotan. Nahiz eta, Javier Díaz Nocik dioenez, 'Argia' aldizkariaren kirol-saila 'Jolasak' deitu 1920ko hamarkadan, eta ez 'Kirolak'.

Amatiño. Deia, 2007-10-03

2. Testua

Grisa

Ama etorri zaio Peruri etxera eta harrikoa egin du. Ezin du ebitatu. Kosta egiten zaio geldi egotea, lasai, patxadan. Zeozer egin behar du beti. Dena garbikuzitakoan hala-hola utzi du xukaderan, ondo iritzi dion moduan. Peruk ikusi duenean ia dena birkokatu du. Ezeroso sentitu da ordena inkoherente eta ezohiko horren aurrean. Sardexkak, koilarak, edalontziak, platerak... dena birkokatu du Peruk.

Aita etorri zaio Peruri gero eta autoaren olio urria konprobatu du, baita galgetarako likidoa eta izoztean kontrakoa ere. Ezin du ebitatu. Kosta egiten zaio bizitza osoan egin duena ostera ez egitea, lasaitasun berri bati ekitea. Peruk dena ikusi eta berriz jarri da ezeroso. Gogoia eman dio olio lastotxo batez zupatu, atera eta lehengo neurri urrietara ekartzeko; baina, ez du egin. Ez zeukan lastotxorik.

Lagunak etorri zaizkio eta beti bezain zikin jardun dute, beti bezain ketsu eta beti bezain txantxazale. Ezin dute ebitatu. Betiko txantxei betiko elkarriketa eta esanak jarraitu zaizkie. Betiko desordenua ordenatu behar izan du Peruk lagunak alde egindakoan. Dena txukundu, dena airostu, dena lehengo seriotasunera ekarri.

Telebistako saioak betikoak dira, pertsonaiek beti bezain lautua dute entzefalograma. Irudi luke inork ezin duela ebitatu, ez inongo programatzailek ez inongo telebista zuzendarik. Bat-batean zerbait desberdina. Hizketan ari dira, gaia sakona da baina erraz aurkeztua, jende jakintsua da baina apaltasunez dihardute: pertsonen kezkek, gizateriaren geroa... Hain estrainioa egin zaio Peruri, non instantera amatatu duen telebista. Ohitu egin da gristasunera.

Kalera begiratu eta denak lehenean dirauela ziurtatu nahi izan du Peruk. Hala da. Jubilatuek betiko kafea hartzen dute jubilatuen etxean, etxe-garbitzaileek lehengo soldata ziztrinaren truke egiten dute lan, zuhaitzak lehengo lur beretik zutitzen dira. "Ez dago elementu arrotzik, inkoherenterik, ordenaren kontrakorik", pentsatu du Peruk.

Peru grisa da. Peru robota da. Maniatikoa. Errepikakorra. Bere inguruko guztiak bezain grisa da, bezain robota, bezain maniatiko eta errepikakorra. Ez baita alferrik herri grisean bizi.

Josu Lartategi. Deia, 2004-12-22

HADE

Quirola

1. Testuaren arabera, zein da “kirol” hitzaren jatorria?

- a) Erdi Aroan erabiltzen zen euskal hitza, baina ez gaur duen esanahi berarekin.
- b) Ingelesezko “sport” hitza erabiltzen hasi zenean erabili zen euskal hitza lehen aldiz.
- c) XIX. mendearen hasieran kirol hitzak “jolas” hitzaren zentzua hartu zuen.

2. Egilearen arabera, zein izan da euskal hitzaren ibilbidea?

- a) Azkuek kirol hitzaren esanahia aldatu zuen “jolas” esanahitik gaur duen esanahira.
- b) 1905erako galduta zegoen kirol hitzak “jolas” hitzarekin zuen lotura.
- c) Argitzeko dago nola gertatu zen euskal hitzaren esanahi aldaketa.

Grisa

3. Artikulugileak zer azaldu du?

- a) Gurasoek beti egin dutena egitea dutela gogoko, kostatzen zaiela beste era batera jokatzeko.
- b) Semea euren etxean bizi denez, gurasoek egiten diotela dena Peruri; ezin dutela ekidin.
- c) Amak egindakoa eta ondoren aitak egindakoa lehengora itzuli duela Peruk, ez baita eroso sentitu.

4. Lagunekin, berriz, zer egin du?

- a) Ondo moldatu da Peru, beraren moduko jokaera izaten baitute normalean.
- b) Txukun eta serio jardun du Peruk haiekin, eurak txantxazale samarrak diren arren.
- c) Ohiko jarrera izan du Peruk, eta dena birkokatu behar izan du bere gustura.

5.- Laburbilduz, nolakoa da Peru?

- a) Ez da monotoniazalea eta kolore bakarrekoa, askotarikoa baizik.
- b) Gogokoago ditu ohiko elementu errepikakorrak aldakorrak direnak baino.
- c) Salbuespenena da bizi den herrian eta gizartean.

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

IRAKURMENA

3. Testua

Eta zer?

Zenbat balio dute atzo irakurtzen pasatu nituen hiru orduak? Zer kontzeptu jarriko dut bihar erakusketa batera egingo dudan bisitaren fakturazioan, eta nori pasatuko diot faktura? Galdera inozoak dira, ero batenak, hartu dudan bideak ez darama inora. Ezer balio ez duten gauzen gorazarre egitera naramate, eta horrek areagotu egiten du nire pitzaduraren neurria: liburu baten aurrean hiru ordu betazalak erretzen pasatu eta gero, “zertarako balio du horrek?” galdetzen badidate, “ezertarako ez, eta zer?”, ez zait beste erantzunik bururatzen. Beste erantzunen baten bila jarriko banintz, galdera egin didanaren logikan sartuko nintzateke. Trukearen, dirutan baizik neur ez daitekeen balioaren eremuan. Ez. Vasili Grossman-en *Vida y destino* irakurtzen pasatutako hiru orduak ez dute kontabilitaterik, ez bada galeren zerrendan apuntatzeko: galdutako orduak, hiru.

Eta zer? Gure kobazuloetako gizonak harri bat zorrotzen pasatzen zituen orduak ere ez zuten ezer balio. Eta, gainera, gorriak eta bi entzun beharko zituen, komunitatekoek alfertzat edukiko zuten-eta. Baina harri zorrotzak animaliak zauritzeko balio zuela ikusi zutenean, beste begirune batez hasiko ziren tratatzen gure alferra. Teknologiai beti izan du propaganda ona. Beste urrats bat: alferraren lagunen batek harri landua hartu eta emakume baten lepoan jarri zutenean, alferraren lagunak emakumearen esker oneko irribarre sentsuala irabaziko zuen. Gizaki okupatuak badaki dekorazioaren alde apaingarria estimatzen. Baina gure alferrak kobazuloko paretak margotu zituztenean? Irudi haiek ez zuten ehizarako balio, ezta emakumearen lepotik zintzilikatze ere. Ez ziren teknologia, ezta dekorazioa ere. Ez dago oso fantasia handikoa izan beharrik komunitatean zer nolako eztabaida piztuko zen imajinatzeke: batzuek itsusi amorratutzat zeuzkaten marrazkiok; baten bat izango zen, ordea, marrazkilari alferraren belarriak gozatuko zituena: “ederra duk zaldi hori, pottokoi!”. Degigun jauzi sekulakoa denboran, eta demagun Einsteinen erlatibitatearen teoria. Zertarako balio dezake? Ez du etekinik, ez du bilakabide baliagarririk, eta etorkizunean halakorik izango duen, ikusteko dago. Kobazuloetako zoko galduren batean dagoen margo baten antzekoa da. Ez du ezertarako balio. Gehienera ere, errealitatea hobeto ulertzeko, baina horrek ez du ezer materialik gorpuzten.

Hala ere, baliagarriaren eta alferrikakoaren muga ez da oso argia, eta, aldi berean, egia da atzo alferrikakoa zena, gaur erabilgarri bihur daitekeela. Begiratu besterik ez dago zer nolako industria sortu den kode genetikoaren erabilgarritasun praktikoaren haritik. Baina Francis Crick-ek eta James Watsonek kodea deskubritu zutenean, ez zuten imajinatu ere egin deskubrimendu hark zer ekar zezakeen. Plazer hutsa eta errealitatearen alde ezkutu baten argiketa, lehen momentuan ez zioten beste etekinik ikusi deskubrimenduari. Badakigu zer gertatu den gero: zientzia hutsaren bideak ez dio Cricki etekin ekonomikorik eman, errentagarritasun praktikoarenak, aldiz, Watson aberastu du. Horra, bada, auziaren alde bat, nabarmenena agian: ukitu, neurtu, zenbatu daitekeen zerbait produzitzeak du benetako balioa.

Ba al dago beste desberdintasun nabarmenen bat erabilgarritasuna bilatzen zaion ekimen intelektual baten eta hausnarketa inutilaren artean? Aurrekoaren ondorio logiko bat: bezeroaren existentziarena. Gaurko artegintza plastikoa, inoiz ez bezala erabiltzen da bezero hitza. Sarritan entzuten ditugu horrelakoak: artea krisian baitago, bezeroek nahiago dute beste inbertsio-klase batzuetara jo; bezeria krisian dago; bezeroen esku dago galerien etorkizuna... Kurioso dirudi, baina badu bere logika. Ez da, noski, arte hutsaren logika, baina artea ez da ba merkatu batean mugitzen?

Beti oso praktikoa izan den gure euskal gizartean gero eta hots gehiago entzuten ari gara ikerketaren, bikaintasun zientifikoaren alde. Teknologiai eta zientzia praktikoek ekarriko digutela etorkizuna, han eta hemen ez dugu besterik entzuten. Hori da gaurko buruzagi politikoek eta akademikoek herri honentzat nahi luketen plan estrategikoaren muina, eta bide horretatik egiten ari diren inbertsioak gero eta handiagoak dira. Ez dut deus horren kontra. Edo bai. Ez dut humanitatei eta izpirituaeren doaneko lanketari buruzko hitzik entzuten. Hor dugu Guggenheim-en adibidea: arte munduan egin den ahaleginik garestiena —bai politikoki, bai ekonomikoki— diskurtso utilitarista batekin promozionatzen digute: sekulakoa omen Bilbori ekarri dion ospea, sekulakoa turismoaren gorakada. Ekarki artistikoren bati buruzko hausnarketarik, bakar bat ere ez. Miraz nago nola ez diren oraindik filosofia edo arte ederrak bezalako fakultateak itxi eta birziklatzen hasi.

Anjel Lertxundi Esnal
El Correo: Territorios kultur gehigarria, 2007-11-24

Eta zer?

6.- Zer dio egileak irakurtzen eman dituen hiru orduz?

- a) Hiru orduz betazalak erre ondoren, lana kontuan hartua izan dadin eskatuko duela.
- b) Trukearen eremuan sartzan direla eta orduak kontabiliza ditzan eskatuko diotela.
- c) Alferrik eman dituela esan beste erremediorik ez duela.

7.- Lehen gizakiek zer baloratzen zuten?

- a) Landutako harria erabilgarria zela ikustean aintzat hartzen zuten egilearen lana.
- b) Harria lantzen zuen gizakia begirunez hartua zen lehen unetik.
- c) Alfertzat zeukaten ehizarako tresnak egiten zituena, baina ez kobazuloak dekoratzen zituena.

8.- Zer dio egileak baliagarria eta alferrikakoa denari buruz?

- a) Errentagarritasun ekonomikoa izan dezaketen gauzak soilik baloratzen dituela zientziak.
- b) Ez dagoela garbi zein diren balio duenaren eta deusik ere balio ez duenaren arteko mugarriak.
- c) Erabilgarritasun praktikoa onura ekonomikoa ekarri duela, ezinbestean, deskubrimendua egin duenarentzat.

9.- Bezeroen existentziari buruz zer dio?

- a) Bezeriak, nola edo hala, baldintzatu egiten duela artearen mundua.
- b) Logikoa dela bezero gutxiago egotea.
- c) Haien existentziak ez duela eraginik artearen munduan.

10.- Lertxundik dioenez, zer pentsatzen du gizarteak zientziaz eta teknologiaz?

- a) Gizarteak berdin baloratzen dituela zientziak eta humanitateen arloa eta horregatik egin direla bietan inbertsio handiak.
- b) Teknologiaren arloan egin direla inbertsiorik handienak, batez ere lanen praktikotasunari begiratzen zaiolako.
- c).Humanitateen arloan, eta bereziki artean, egin direla inbertsiorik handienak, teknologiaren aurretik.

6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	-----

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

A zatia 50 (gutxienez 28)	Irakurmena	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	45 min
	Gramatika eta hiztegia	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	25 min
	Idazmena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	1h 15 min
B zatia 50 (gutxienez 27)	Entzumena	% 20	Gutxienez 10 puntu	20 puntu	25 min
	Mintzamena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	10 min
GUZTIRA		%100	gutxienez 55	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Era berean, ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

EGITEKOA BETE. Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA. Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.
GRAMATIKA ETA HIZTEGIAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA. Gramatika-egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.